



## IV. ERANSKINA

### OINARRIAK

#### 2024/2025 IKASTURTERAKO 4. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EGIAZTATU NAHI DUTENENTZAT.

##### 1.- Helburua eta ezaugarriak:

Ikastaroaren helburua: 4. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu nahi duten langileei zuzendutako ikastaroa da.

##### Eska dezakete:

- **Lanpostuan 4. eta 3. HE dutenak:** eskaera egitean, 3. HE gaitututa eduki behar du eskatzaileak, edo IVAPko hizkuntza-eskakizunen baliokidetzaren erregistroan jasota egon behar du. Hori horrela ez bada ikastaroa eskatzeko dokumentu honen **5.2 ataleko 3. puntuaz azken baldintza irakurri** eta bete beharko du langileak. Lanpostuan 4. HE dutenek lehentasun osoa izango dute.
- **Lanpostuan 1. eta 2. HE dutenak:** 3. HE gaitututa edukitzeaz gain, eskatzaileak gutxienezko titulazio akademikoa eduki behar du ezinbestean: **unibertsitate tituluaren bat edo goi mailako heziketa zikloaren tituluaren bat**.
- Ordezko funtzionarioek eta aldi baterako langileek, gutxienez **2024ko abenduaren 31ra** arteko lan kontratua izan beharko dute. Horretarako, **kontratuaren kopia** bidali beharko dute.

##### 2.- Ordu kreditu sistema

2005eko azaroaren 30eko aginduaren bidez IVAPek eta UPV/EHUK sinatu zuten hitzarmenari jarraituz, **ordu kredituen sistema ezarri** da (2005eko abenduaren 19ko EHAA (239. zk.), I. kapitulua). Agindu hori 2006ko irailaren 30ean sartu zen indarrean, hau da 2006/2007 ikasturterako. Horrela, ordu kreditu negatiboa dutenek ezin izango dute liberaziorik izan 2024/2025 ikasturterako.

##### 3.- Betebeharreko baldintzak

Deialdi honetan parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

- UPV/EHUKo administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko kidea izatea, eta **3. Hizkuntza eskakizuna gaitutua** izatea.
- UPV/EHUKo administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko kidea izatea (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa eta aldi baterako lan-kontratu duen langilea, lanpostu hutsean zein ordezkoan egon).

##### 4.- Liberazioen gehiengo kopurua eta irizpideak lehentasun mailaren arabera

###### 4.1. Kopuruak:

- **Lanorduetako** ikastaroak: **ez dago mugarik**.
- **Lanorduz kanpoko** ikastaroak: **ez dago mugarik**.
- **Autoikaskuntzako** ikastaroak: IVAPek eskaera **kopuru mugatua** onartuko dio erakunde bakoitzari.
  - Autoikaskuntzarako bideratuko den eskaera kopurua **erakunde bakoitzak onartzen dituen lanorduz kanpoko eskaera deialdi guztien %30a** izango da.
  - Autoikaskuntzan ez da eskola uzterik onartuko. Behin ikastaroa hasita, ikastaroaren **ordu kopuru osoa (190 ordu) kenduko** zaio ikasleari bere ordu kredituari.

4.2.- Unitate bakoitzaren % 50 gutxienez ziurtatuta geratu behar da.



**4.3.-** Euskara eskoletara joateko baimenak emateko irizpideak plangintzaren helburu nagusiei lotuta daude eta honako hauek dira lehentasunaren arabera antolatutak: lanpostua kokaturiko unitate mota (AE, A, B, C, D) eta eskatzailearen lan harremana (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa, aldi baterako lan-kontratua duen langilea). Lehentasun honi jarraituko zaio:

- Lanpostuan eskatzen zaien 3. Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- Lanpostuan eskatzen zaien 3. Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan-kontratua duten langileak direnean.
- Arestian aipatzen diren ataletan sartzen ez diren gainontzeko langileak, ordezkoak egiten ari diren bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako lan-kontratua duten langileak orokorrean, lehentasuna jartzeko irizpideak honako hauek izango dira:
  - a. Euskara ikasten egon izana 2023/2024 ikasturtean.
  - b. Gainditutako euskara maila (lehentasuna mailarik handienak du).
  - c. UPV/EHU lan egindako egunak.

Euskara ikasten egon izana eta maila gainontzeko langileentzat ere kontutan hartuko da.

## **5.- Eskaera**

Eskaera honen bitartez urte osorako liberazioa eskatzen da. Hau da, **otsailerako deialdian ez da 2 orduko eskaera berririk onartuko.**

**Oharra:** Langileak plaza hutsa betetzen ez duelako edo ordezkoak egiten dituelako, lanpostuz aldatzen baditu bi orduko liberazioa duen bitartean (lanorduen barruan), jakinarazi egin beharko dio nagusi berriari liberazioa duela, nagusi berriak ez baitauka zertan liberazioaren berri izan. Nagusiak eragozpenik badauka liberaziorako, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzarekin jarri beharko da harremanetan eta idatziz azaldu zeintzuk arrazoi dituen baimena ukatzeko. Idatzi hori kontuan hartuta, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza izango da azken erabakia hartuko duena.

### **5.1.- Eskaerak betetzeko zehaztasunak**

- Ordutegi bereziak direla eta, euskara lanorduz kanpo ikastera behartuta dauden guztiek, 2 ordu eta erdiko lan murrizketa eskuratzeko (onartuak izatekotan), eskaeran **"Lanorduetan"** jarri behar dute.
- Eskaera egitean, IVAPeko 3.HE gaindituta eduki behar du eskatzaileak. Edota IVAPeko hizkuntza-eskakizunen baliokidetzaren erregistroan jasota egotea. Honi buruz informazio gehiago IVAPeko "baliokidetzak" webgunean: <https://www.ivap.euskadi.eus/hizkuntza-eskakizunak-baliokidetzak/z16-a3heinf/eu/>



## 5.2.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea **apirilaren 19tik maiatzaren 3ra** izango da (biak barne). Ez da epez kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

**Oharra:** Eskariak egiteko azken eguna helduta langileak ez badu nagusiaren baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango du baimen hori. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bidali beharko du, azalduaz zergatik ez duen nagusiaren baimenik lortu.

**Oharra:** Nagusiek baimena ukatuz gero, txostena egin beharko dute **baimena ez emateko arrazoiak azalduta. Langile bakoitzeko txosten bat helarazi beharko da. Ez dira zerbitzu oso baterako txosten bateratuak onartuko.** Txostenak Euskalduntze Batzordeari bidali beharko zaizkio, 10 laneguneko epean, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzak 5 orduko liberazioetarako onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duenetik kontatzen hasita. Epe hori erreklamazio egunekin bat etorriko da (**maiatzak 15-24**) eta **txostena helbide honetara bidali behar da:** [euskara-plangintza@ehu.eus](mailto:euskara-plangintza@ehu.eus).

## 5.3.- Eskaerak non eta nola aurkeztu

Eskaerak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakia beteaz aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/indarreko-deialdiak>. Eskabide bakoitzeko inprimaki bana bete behar da.

Eskaera egin ondoren, eskatzaileek eskaeraren datuak berresteko mezu bat jasoko dute beren helbide elektronikoan. Berrespen hori UPV/EHUren erregistro elektronikoan erregistratuko da: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).

Era berean, berrespena aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.



## **6.- Lizentzia erabiltzeko baldintzak**

### **6.1.- Klaseen egutegia eta egindako huts egiteak zuritzea**

Ikastaro hauek eskatzen dituzten langileek IVAPek jartzen duen egutegia onartu behar dute, IVAPek antolatutako taldeetan baldin badaude. IVAPek antolatutako taldetik at baldin badaude, kasuan kasuko euskaltegiak ezarritako egutegia bete beharko du ikasleak.

Hau honela, lanorduetan euskara ikasteko onartua izan den langileak ezin izango du beste eratako ikastarorik egin ezta oporretarako egunik hartu (ezinbesteko kausak salbu), baldin eta horrek euskaltegioko klaseetara huts egitea eragiten badio. Horrelakoetan, huts egiteak ezin izango dira zuritu.

Huts egite guztiak posta arruntez edo elektronikoz zuritu behar dira, lizentziei eta baimenei buruzko arautegiarekin bat etorritik.

Ikaslea ez bada joan euskara eskolara laneko arrazoiak direla medio, interesatuak idazkia bidali beharko du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzara arrazoiak azalduz eta bere nagusiaren oniritziarekin.

Huts egiteak zuritzen ez badira, langilea eskolatik kanpo utziko du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak.

### **6.2.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko froga**

Liberazio hauetan onartutako langileek (bai lanorduetan, bai lanorduz kanpo matrikulak ordaintzen zaizkienean) hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko aldiro egiten diren frogetara aurkeztu beharra izango dute, betiere **C2.2** azpimaila egiten ari badira.

Irizpide hau ez betetzeak liberazio berririk ez eskuratzea ekarriko du.

### **6.3.- Liberatuta dagoen batek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen badu.**

2 orduko liberazioa duen langileren batek 4. hizkuntza eskakizuna lortuz gero, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak liberazioa kenduko dio, betiere, IVAPek hutsune hori betetzeko aukera badauka. IVAPek ezinezkoa badu hutsune hori betetzea, langileak lanorduetan euskara ikasten jarraitu ahal izango du ikastaroa bukatu arte, baina horretarako, nagusiaren oniritzia beharko du.

## **7.- Lanorduz kanpoko ikastaroak**

**7.1.-** Euskarazko ikastaroak lanorduz kanpo egiten dituzten langileei lanaldia, ordutegia, oporrak eta baimenak zehazten dituen zirkularrak diona aplikatuko zaie. Dena den, sor litezkeen kasu edo egoera berezi guztiak Euskalduntze Batzordeak aztertuko litzuzke.

**7.2.- Autoikaskuntza ikastaroak** egiteko aukera dago. Eta **"Deialdi guztietarako arauak"** izeneko eranskineko *Matrikula orriei buruzko oharretan* aipatzen direnak kontutan izango dira.

## **8.- Onartuen zerrendak**

Aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, **onartuen** eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira **ehutauletan** eta Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren web orrian ere: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>.

**Behin-behineko zerrendak maiatzaren 14an** argitaratuko dira, eta interesdunek **maiatzaren 15etik 24ra** izango dute erreklamazioak aurkezteko epea. Erreklamazioak deialdi honetako 5.4 puntuan azaldukatu prozedurari jarraituz egingo dira, Euskara, Kultura eta Nazioartekotze Errektoreordetzaren webgunean eskuragarri dagoen zuzenketa-inprimakia, dokumentazioa eta erreklamazioak beteaz.

Erreklamazioak aurkeztu ondoren, eta guztiak aztertu ondoren, behin betiko zerrendak **ekainaren 4tik aurrera** argitaratuko dira lehen aipatutako iragarki tauletan, Euskalduntze Batzordea bildu ondoren.